

---

# AJURIA ENEA'KO ITZARMENA

---

## GUZTIAK

Ez da gauza erreza politikako alderdi guztiak bateratzea.

Guztiak bateratzen dauzan gai bat, Laterre-lege nagusia edo konstituziñoa da, eta mailla beratan izan bear leuke, gure Araudiak be. Legez orrelan da, baiña beteteko orduan ez da beti agertzen bateratasun ori.

Baiña Laterri legea ez da Jaungoiko bakarra. Beste gauza asko dagoz, gizakiak garalako beste barik, guztiok batera onartu bear doguzanak, eta onein artean bat izukeriaren eta ortik sortzen diran ilketa ta galtzeen aurka jokatzeta da.

Jakiña, arlo onetan be ez dira alkartuko izukeriaren alde dagozanak.

## ZERTARAKO

Ajuria Enea'ko itzarmenera deia, gauza ego-kia ta bearrezkoa zan, gure Erriari ainbeste kalte egiten dautson izukeria alboratzeko, izukeri-zaleak bakarrik dagozela adierazteko.

Dei orretara erantzuna emon eben alderdiak, izukeri-zaleak izan ezik beste guztiak, oso ezbaridiñak dira eta batez be euren arten diran pentsakerak ez dira alkartzeko modukoak, batez be Euskalerrriaren nortasunari begira. Arlo orretan bakarrik alkartzen garala dirudi: Izukeririk ez dogula nai ziurtatzean.

## MUGAK

Olako itzarmen bat izenpetzen danean, mugak non diran jakitea ez da izaten gauza erreza. Esaterako au zan itzarmenaren arau bat: ETA'gaz eta bere alde dagozenakaz, politikarako artu-emonik ez izatea.

Baiña batzuk arau ori zabalegi artu eta ezela-ko artu-emonik ez izatea ulertzen dabe, beste batzuk, ostera, bere neurrian, eta politikakoak ez

diran arazoetan artu-emonak izan leitekezala dabe uste.

Orra or, Leizaran'go autobidearen arazoan izan diran eztabaida batzuren sustraia.

## BA'DATOZ

Egunen baten, izukeri-zaleak eta euren lagunak, izukeria izteko eta errigintzako arauetara sartzeko guraria agertuko ba'lebe, alkar-izketa aske izango litzake.

Eta Leizaran'go autobidearen arazoan, euren jokabide estua apur bat zabaldu eta besteakaz jokabide barri batera sartzeko gertu agertzen ba'dira, jakiña, orretan be alkar-izketarako askatasuna ez dago kenduta.

Zori txarrez, laster ikusi zan, emondako ber-bea be, ez ebela gero betetu. Baiña jokabide orrek urrengo ekintzetarako alkarrengan izan bear dan uste ona kentzen dau. Eta gizartean uste ona bearrezkoa da.

## ITZARMENA AUSI

Alderdi guztiak alkartuta jokatzeta, bearrezko gauzeta da, izukeria alboratu al izateko, orregaitik alegin osoa egin bear dabe alderdi guztiak itzarmena ez austeko, alkartuta jarraitzeko; bes-terik ezean, ezaugarri lez.

Errez sortzen da zalantza, ainbeste berba egiten dan aldi onetan berbak zeatz aztertu ezkerro, baiña alkar ulertzen alegiña egin bear da eta ero-apen aundiagaz, asarre barik, gauzak artu.

Itzarmen orretan alderdi guztiak jarraitzeta, gauza ederra litzake.

M.O.'EK